

GRAMATIKA: BURUZ ALA BURUZKOAK

Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

Ainhoa Segura andrea Leintz euskaltegia

Segura andrea, agur:

Zuregandik jaso ditugun galdera batzuen erantzuna ematera natorkizu le-
rro hauen bidez.

a. *Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruz? Ala Zenbat liburu ira-
kurri dituzu animaliei buruzkoak?* Biok ondo.

*Komentario asko entzun dut gai horri buruz ala Komentario asko entzun
dut gai horri buruzkoa.* Lehendabizikoa ondo; bigarrenak buruzkoak behar du.

*Irakurri ditudan liburuak maitasunari buruzkoak dira ala Irakurri ditu-
dan liburuak maitasunari buruz dira.* Biok ondo.

Era horretako perpausetan bi aukerak (*buruz nahiz buruzkoak*) ondo dau-
de Gramatika batzordearen ustez; hori bai, betiere izenlaguna atzeratzen zaion
izen sintagma absolutiboan delarik. Ezinezkoa baita honako perpaus hau egi-
tea:

**Liburu batean irakurri dut nazionalismoari buruz.*

Absolutiboan doalarik, bai, ordea:

Liburu bat irakurri dut nazionalismoari buruz.

b. *Norekiko birdeklinabidea, izenlaguna denez, beti izenaren aurrean ja-
rri behar dugu? Hau da, Errespetu handia du gurasoekiko edo Gurasoekiko
erakusten duen errespetua bezalako esaldiak oker daude?*

Ez dugu uste *-kiko*-k nahitaez izenlagun izan behar duenik, badira-eta hor
ematen dituzuen adibideak bezalakoak, eta ez gutxi, euskararen literatura tra-
dizioan. Ez genuke esango, beraz, horko adibideak okerrak direnik. Hori bai,
Iparraldeko tradizioan, *-kilako* (*-kiko*-ren baliokidea) sistematikoki erabiltzen
da izenlagun gisa; ez du adizlagun erabilerarik. Hegoaldeko tradizioan ere,

esan dugun bezala, adizlagun erabileraren lekukotasunak badiren arren, izenlagunarenak askoz ere ugariagoak dira; alegia, *Gurasoekiko errespetu handia dut* edo *Gurasoekiko harremanak hoztu egin dira aspaldion*.

c. *Nongo(a), norenganako(a), norekiko(a), buruzko(a), aldeko(a), kontrako(a)* ... kasuek izenak kenduz gero, *-a* mugatzailea hartzen dute. Noren-tzako eta norako kasuek ere har lezakete mugatzailea? Hots, *amarentzakoa* edo *gelarakoa* esateari zuzen deritzozu?

Bai; ezin esan dezakegu horiek biak agramatikalak direnik. Hori bai, oso emankorrek ez direlakoan gaude. Izan ere, logikaren arabera horiek erabil badaitezke ere (eta erabili ere egin izan dira), eguneroko jardunean horiek baino arruntagoak diren formak erabili izan ditugu askoz sarriagotan euskal hiztunok; hala nola, genitiboa (*amarena*), adizlaguna (*amarentzat*) nahiz *-ko* atzizki hutsa (*gelakoa*).

Alegia,

Oparien artean, zein da amarentzakoa? baino gehiago, *zein da amarena?*

Oparien artean, zein da amarentzakoa? baino gehiago, *zein da amarentzat?*

Gortinetan, zein da gelarakoa? baino gehiago, *zein da gelakoa?*

Besterik gabe; zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.